



# Xortaz xorta

- Sarako lezeetako kultur gertakariak -

## 2025 urtea animazioz betea izanen da Sarako lezeetan!

Atsegin handiz aurkezten dizuegu Sarako lezeetan 2025 urterako prestatu dugun egitaraua. Egitarau honekin bisita gidatuez gain, gure ondare kultural, historiko eta naturala argitan emateko eta publiko zabalari transmititzeko dugun engaiamendua berretsi nahi dugu.

Gertakari bakoitza, gainera, Lezea beste ikuspuntu batetik ezagutzeko aukera ezin hobea izanen da.

## Lezearen edertasun naturala abentura sakonago baten abiapuntua besterik ez da...

Milurtekoetan barna, Sarako Lezea gure arbasoen jendarte-biziaren lekuko eta eragile izan da. Ingurumenarekin lotura handia zuen zibilizazio bat sortzen eta garatzen ikusi zuen. Gure arbasoak ikusi zituen espazioa haienganatzen, bizitzeko, bizileku bat hautatzeko, laborantza, artzaintza, jendarte eredu bat garatzeko. Gizakiaren eta naturaren arteko lotura bereizezin horrek hainbat mito eta erritu sorrarazi zituen gainera, duela ez hain aspaldi arte oraindik bizirik zirautenak...

Ondare horren babesteaz eta transmititzeaz gain, Sarako Lezea toki bizi bat da, trukaketa-gune bat, eta gure garaiaren isla ere izan behar du. Kultura gure tradizioetan, bizimoduan, arte-adierazpideetan eta jakintzen transmisioan bizi den altxorra da eta lurraldeko hainbat talentuk gorpuzten dute: artistek, musikariek, ikerlariek, sortzaileek eta bestelako zaleek.

Aberastasun horretaz kontziente, egitarau hau sortu dugu haien sostengatzeko, argitan ezartzeko eta lana publiko zabalari ezagutarazteko. Ideia horrekin proposatu nahi dugu Sarako Lezeetan denboraz kanpoko toki bat, kultur eragileen eta publiko zabalaren arteko topaketetarako, bakoitzak bere ondarea ezagut dezan eta kultura aberats dezan.

«**Xortaz xorta**», lezea zizelkatzen duten ur tantek bezala, ekimen hauek gure kultura eta historia zizelkatzen dituzte. Elkarrekin etorkizunari forma eman diezaiozun.

---

*Zatozte saldo handian momentu goxo hauek  
Sarako Lezeetako gune miresgarrian bizitzera!*

---

# Sarako Lezeetako EGITARUA 2025

## (aldaketak izan ditzake)

### OTSAILA

---



#### IHATERIETAKO ERAKUSKETA

**Sarako Artisten eta ikastetxeen eskutik.**

**Noiz:** Otsailaren 22tik Martxoaren 10era.

Herriko artistek eta ikastetxeek (eskola publikoa, San Josepe ikastetxea, Olhain Ikastola) ihauterietako erakusketa bat prestatu dute.

Urririk, Sarako Lezeetako harrera-aretoan, egunero 13:00etatik 17:00etara.

### MARTXOA

---



#### «OSKOLAREN AZPIAN»

**Bisita berezia Kobazuloen Egunaren kariatara.**

**Noiz:** Martxoak 16, igandea - 11:00etan.

**Hizkuntza:** eskuara.

Maddi ZUBELDIaren sorkuntza, Haize Leizean liburutik egokitua.

Sar zaitez lurraren sakonean. Orduko Maddi gazteak historiaurreko erritu inizatikoak eta bizimoduak ezagutzera eramanen zaitu, denboraz kanpoko galderari bide eginez...: historiaurreko gizakiak, beren hertsapen eta galderekin, hain desberdinak al ziren gurekiko?

### APIRILA

---




#### ELEMENTUEN OSPAKIZUNA

**Iparraldeko Maurice Ravel Kontserbatorioko ikasleen ikusgarria.**

**Noiz:** Apirilak 5, larunbata - arratsalde bukaeran.

Iparraldeko Maurice Ravel Kontserbatorioko ikasleek 4 elementuen inguruko bidaia musikal batera gomitatzen zaituztete lezearen barnera. Sylvain Griotto musikagilearen sorkuntza, espresuki Sarako lezeetarako sortua.



#### CHRONIQUES D'UNE VIE À L'ENVERS - UNE NUIT AVEC LES CHAUVES-SOURIS

**Sébastien CAZES eta Laurent TILLONen liburuaren inguruko topaketa.**

**Noiz:** Apirilak 26, larunbata - 18:30etan.

**Hizkuntza:** frantsesa

Sébastien CAZES eta Laurent TILLONEk sortutako saguzarrei buruzko komiki irringarri eta argigarri hau egileetako batek aurkeztuko du eta Peio CORNU adituak bere azalpenekin osatuko du (Akitania Berriko Ereku Naturalen Kontserbatorioa).

## MAIATZA



### MITOGAUA

**Euskal mitologiari eta sinesmenei buruzko gaualdia.**

**Noiz:** Maiatzak 24, larunbata - 18:00etatik aitzina.

**Hizkuntza:** eskuara / frantsesa.

Gaualdi oso bat euskal mitoen, errituen eta sinesmenen inguruan. Bi hitzaldirekin hasiko da:

- **Anuntxi ARANA**k aztertuko du nola biziraun duen mendez mende euskal mitologiak, erlijio et sinesmen dominanteen eragina gorabehera.
- **Philippe LAPLACE**k euskal megalitoetan barna eramanen gaitu bidaia ilustratu batean eta gordetzen dituzten antzinako mito eta errituak azalduko dizkigu, geobiologiaren ekarpenari buruzko gogoeta bat abiatuz.

**IRATI filmaren proiektzioa, kanpoan:** Bi aurkezpen horien ondotik, gaualdiak kanpoan segituko du, lezearen sartzarean parean, ilundua izanen delarik, euskal mitologiaren munduan murgilduz IRATI filmaren bidez. Paul URKIJIO ALIJOREn film arrakastatsuak abentura liluragarri bat kontatuko digu, Erdi-Aroko historia eta fantasia uztartuz antzinako sinesmenak ezagutaraziko dizkiguna Iratik gidatuko duen Enekoren bidaia bidez, herri pagano baten girstinotzearen hastapenetan.

**Proiektzioa aitzin jatekoa eta edatekoa izanen da.**

## EKAINA



### EUSKAL HERRIKO PALEOLITO GARAIKO KOBAZULO APAINDUAK

**Hitzaldia, Leize turistikoaren eta lur azpiko munduaren Nazioarteko Egunaren kariatara.**

**Noiz:** Ekainak 06, ortzirala - 18:30etan.

**Langue :** eskuara edo frantsesa, parte-hartzaileen arabera.

Diego Garate historiaurreko artean aditua eta Kantabriako Unibertsitateko irakasle-ikertzaileak, Euskal Herriko azken labar artea aurkikuntzei buruzko ezagutzak partekatuko ditu. Parada ederra historiaurreko ondareaz dugun ezagutza aberasteko!

## UZTAILA



### GAUENARAREN NAZIOARTEKO GAUA

**Akitania Berriko Ereku Naturalen Kontserbatorioak antolatu gaualdia.**

**Noiz:** Uztailak 25, ortzirala - 20:00etan.

**Hizkuntza:** frantsesa.

Saguzarren nazioarteko gauaren 29. edizioaren kariatara, zatozte ugaztun txiki horren ezagutzera eta Sarako lezeen barnean eta inguruetan duen garrantziari ohartzera.

Saguzarren behaketa gidatu bat proposatuko dizuegu lezean, Akitania Berriko Ereku Naturalen Kontserbatorioko aditu baten azalpenekin.

## AGORRILA

---



### ONDARE HISTORIKOAK ETA NATURALAK TOPO EGITEN DUTELARIK...

**Imanol AMESTOYren bisita gidatua (CPIE Euskal Itsasbazterra).**

**Noiz:** Agorrila 21, ortzeguna, 9:00etan.

**Hizkuntza:** eskuara edo frantsesa, parte-hartzaileen arabera.

Imanol AMESTOY CPIE Euskal Itsasbazterreko adituak Sarako lezeen inguruko paisaien irakurketa bat egiten digu, gaur egun ezezagunak diren aberastasun natural eta arkeologikoak azalduz eta gizakiaren eta mendiaren arteko antzinako elkarbizitza erakutsiz.

## IRAILA

---



### MARINEL/ARRANTZALEAK, SARATIK TERNUARA

**Sorkuntza berezia Ttikia & Patxi Amulet-en eskutik.**


**Noiz:** Irailak 5, 19:00etan.

**Hizkuntza:** frantsesa eta kantuak eskuaraz.

Sarako marinelen Ternuarako bidaietan barna ibil zaitez, XVI. eta XVII. mendeetan zehar, eta kontakizunen, irudien eta kantuen bidez eta ezagutu beren abentura arriskutsuak.

## URRIA

---



### MARRUMAKA

**Asteburu berezia Sarako Lezeetan.**

**Noiz:** Urriaren 4a, larunbata eta 5a, igandea.

Sarako Lezeetan **asteburu berezi bat prestatzen ari gara 2025eko animazioei bukaera emateko**, USOPOekin eta Sarako elkarteekin elkarlanean. Egitaraua pixkanaka iragarriko dugu...

## ERRESERBAK ETA INFORMAZIOA

---

Gertakari bakoitzari buruzko informazio osoa eta erreserbatzeko lotura webgunean hedatuko ditugu (<https://www.sarakolezeak.eus>), baita sare sozialetan ([Facebook](#), [Instagram](#)) eta e-mail bidez ere dagokion hilabetean.

Gure mezuak errezibitzeko e-mail zerrendan sartu nahi baduzu, bidali zure datuak helbide honetara: [com@grottesdesare.fr](mailto:com@grottesdesare.fr). Nahi duzuelarik ken dezakezue zuen helbidea.

**Sarako Lezeetan sar daitekeen jende kopurua mugatua denez, beharrezkoa da aitzinetik izena ematea. Erreserbatzeko aukera gertakari bakoitza iraganen den hilabetean irekiko da, zuzenean gure webgunean.**

## KOMUNIKAZIO EUSKARRIAK ESKURAGARRI:

---

Lotura hauetan komunikazio-bisualak atzemanen dituzue:

- **Afixa frantsesez:** [https://www.grottesdesare.fr/xortazxorta/affiche\\_xortazxorta2025\\_fr.pdf](https://www.grottesdesare.fr/xortazxorta/affiche_xortazxorta2025_fr.pdf)
- **Afixa eskuaraz:** [https://www.grottesdesare.fr/xortazxorta/afitxa\\_xortazxorta2025\\_eu.pdf](https://www.grottesdesare.fr/xortazxorta/afitxa_xortazxorta2025_eu.pdf)
- **Sarako lezeetako aitzineko gertakarien argazkiak:** <https://www.flickr.com/gp/sarakolezeak/nq48C5N9yd>
- **Sarako lezeen argazki libreak:** <https://www.flickr.com/photos/sarakolezeak/>

Gertakarien bisualak hilabete bakoitzean bidaliko dira e-mail bidez.

--- Egitaraua urte osoan zehar lantzen segituko dugu. ---

## HARREMANETAN JARTZEKO:

---

- **Fabrice IPARAGUIRRE**, Sarako lezeen zuzendaria:  
Tel: +33 6 81 33 51 60 – Eposta: [lezea@grottesdesare.fr](mailto:lezea@grottesdesare.fr)
- **Argitxu ACHERITOGARAY**, Komunikazio digitala:  
Tel: +33 6 70 08 19 52 – Eposta: [argitxu@grottesdesare.fr](mailto:argitxu@grottesdesare.fr)



# XORTAZ XORTA

**SARAKO LEZEAK** 

- |                           |                                                                                       |
|---------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>OTS 22 &gt; MAR 10</b> | <b>IHAUTERIATAKO ERAKUSKETA</b><br>Sarako ikastetxeek eta elkarteek eginik            |
| <b>MARTXOAK 16</b>        | <b>OSKOLAREN AZPIAN</b><br>Maddi Zubeldiaren sorkuntza berezia                        |
| <b>APIRILAK 05</b>        | <b>ELEMENTUEN OSPA KIZUNA</b><br>Iparraldeko Maurice Ravel Kontserbatoriokoa          |
| <b>APIRILAK 26</b>        | <b>CHRONIQUES D'UNE VIE À L'ENVERS</b><br>Liburuaren inguruko topaketa                |
| <b>MAIATZAK 24</b>        | <b>MITOGAUA</b><br>Euskal mitologiari eta sinesmenei buruzko gualdia                  |
| <b>EKAINAK 06</b>         | <b>LABAR-ARTEA EUSKAL HERRIAN</b><br>Diego Garate adituaren mintzaldia                |
| <b>UZTAILAK 25</b>        | <b>GAUENARAREN NAZIOARTEKO GAUA</b><br>«CEN Nouvelle-Aquitaine» elkarteak aurkezturik |
| <b>AGORRILAK 21</b>       | <b>ATERALDIA: LEZEKO GAINA</b><br>CPIE Euskal Itsasbazterrak gidaturik                |
| <b>BURUILAK 05</b>        | <b>MARINEL/ARRANTZALEAK, SARATIK TERNUARA</b><br>Bidaia musikal eta bisuala           |
| <b>URRIAK 04/05</b>       | <b>MARRUMAKA</b><br>Animazio eta kontzertuak asteburu osoan                           |

## 2025EKO GERTAKARIAK SARAKO LEZEETAN

Segi gaitzazu  @grottesdesare  @sarakolezeak

Xehetasunak eta erreserbak: <https://www.grottesdesare.fr/agenda> »

*XORTAZ XORTA, lezea zizelkatzen duen urak egiten duen bezala, eman diezaiogun forma gure kultura eta historiaren paisaiari.*





# XORTAZ XORTA

GROTTE DE SARE 

22 FEV > 10 MARS

**EXPOSITION CARNAVAL**

Réalisée par les écoles et associations de Sare

16 MARS

**OSKOLAREN AZPIAN**

Création originale de Maddi Zubeldia

05 AVRIL

**CÉLÉBRATION DES ÉLÉMENTS**

du conservatoire Maurice-Ravel-Pays Basque

26 AVRIL

**CHRONIQUES D'UNE VIE À L'ENVERS**

Rencontre autour du thème de la chauve-souris

24 MAI

**MITOGAUA**

Soirée autour de la mythologie basque

06 JUIN

**LES GROTTE ORNÉES AU PAYS BASQUE**

Conférence du spécialiste Diego Garate

24 JUILLET

**NUIT INTERNATIONALE DE LA CAHUE-SOURIS**

présentée par le CEN Nouvelle-Aquitaine

21 AOÛT

**SORTIE DÉCOUVERTE DE LEZEKO GAINA**

guidée par le CPIE Littoral Basque

05 SEPT

**LES MARINS/PÊCHEURS, DE SARE À TERRE-NEUVE**

Voyage visuel et musical

04/05 OCT

**MARRUMAKA**

Week-end d'animations et de concerts

## EVENEMENTS 2025 AUX GROTTE DE SARE

Suivez-nous sur  @grottesdesare  @sarakolezeak

Informations et réservation sur : <https://www.grottesdesare.fr/agenda> >>

XORTAZ XORTA : Tel l'eau sculptant la grotte, goutte après goutte, façonnons le paysage de notre culture et notre histoire.

